



6.1 Segurtasun digitala

Segurtasun digitala teknologia modu seguruan eta arduratsuan erabiltzean datza. Horretarako, hainbat arlo hartu behar dira kontuan.

Segurtasun digitalaren arlo nagusiak

Lehenik eta behin, **gailu digitalen babesa** funtsezkoa da. Ordenagailuak, telefonoak edo tabletak birusen, hackeoen eta bestelako arriskuen aurrean babestu behar dira. Horretarako, sistema eragileak eta antibirusak eguneratuta edukitzea gomendatzen da, baita segurtasun-kopiak egitea ere.

Datu pertsonalen eta pribatutasunaren babesa ere ezinbestekoa da. Informazioa modu seguruan gordetzea eta partekatzea komeni da, sarean identifikatu ezin diren datuak ez argitaratuz eta webgune seguruak erabiltzen direla egiaztatuz. Horrez gain, mezu susmagarriak identifikatzen jakitea garrantzitsua da, datuak lapurtu nahi dituzten iruzurrak saihesteko.

Osasunaren eta ongizatearen babesa bermatzeko, teknologiaren erabilera orekatua egitea beharrezkoa da. Gailuen erabilpenean pasatzen den denbora kontrolatu behar da, eta mezu kaltegarrietatik babesteko neurriak hartu. Halaber, teknologia digitalak adineko edo behar bereziak dituzten pertsonei laguntzeko izan dezakeen erabilera ere azpimarratzen da.

Ingurumena babesteko, teknologia modu arduratsuan erabili behar da. Energia-kontsumoa murriztea, hondakin elektronikoak behar bezala kudeatzea eta ingurumenarekiko errespetuzko gailuak aukeratzea dira jarduera gomendagarriak.

Datu, informazio eta ezagutzaren segurtasuna

Azkenik eta segurtasunaren definizioa sakonago landu esan beharra dago informazio eta ezagutzaren segurtasuna bermatzea ezinbestekoa dela enpresa edo edozien erakundetan. Informazioaren konfidentziasuna, osotasuna eta eskuragarritasuna zaintzea beharrezkoa da, eta horretarako segurtasun-politikak garatu eta arriskuen kudeaketa egin behar da. Hemen aipatutako segurtasunaren aspektuen definizioak:

Informazioaren konfidentziasuna: Informazioa baimendutako pertsonen esku bakarrik egongo dela bermatzea, baimenik gabeko sarbideak saihestuz.

Informazioaren osotasuna: Datuak zehatzak eta fidagarriak direla ziurtatzea, baimenik gabeko aldaketak edo manipulazioak galaraziz.



Informazioaren eskuragarritasuna: Beharrezkoa denean informazioa erabilgarri eta eskuragarri egongo dela bermatzea, sistemek modu egokian funtzionatzeko dutela ziurtatuz.

Enpresaren informazioaren segurtasun taldea

Enpresaren baitan segurtasuna digitala lantzeko Informazioaren Segurtasun Talde bat egotea komeni da; enpresaren organigraman integratutako unitate bat. Bere funtsezko eginkizuna enpresako datu, informazio eta ezagutzaren segurtasuna kudeatzea eta babestea da. Horretarako, hainbat jardura gauzatuz, enpresaren aktibo digitalen babesa bermatzeko.

- Lehenik eta behin, **segurtasun politiken** garapena burutu behar du, informazioaren babeserako jarraibide eta arauak ezarriz. Gainera, aktiboen inbentarioa egin behar du, enpresaren informazio-sistemak, datuak eta baliabide teknologikoak identifikatu eta kontrolpean edukitzeko.
- **Arriskuen kudeaketa** ere talde honen ardura da. Horrek esan nahi du informazioaren segurtasuna arriskuan jar dezaketen faktoreak aztertzen eta minimizatzen direla. Horretarako, babes-neurri teknologiko eta antolakuntzakoak ezarriz, hala nola suebakiak, zifratze-sistemak edo sarbide-kontrolak.
- Horrez gain, **sentsibilizazio eta prestakuntza** ekintzak burutu behar ditu, langileek segurtasun-protokoloak ezagutu eta betetzen dituztela bermatzeko. Bestalde, gertakarien kudeaketa egiten du, hau da, segurtasun-urraketak edo zibererasoak gertatzen direnean azkar eta eraginkortasunez erantzunez.
- Azkenik, **segurtasun-auditoriak** burutu behar ditu, informazioaren babeserako ezarritako neurriak behar bezala funtzionatzen ari direla egiaztatzeko eta hobekuntzak proposatzeko. Horrela, Informazioaren Segurtasun Taldeak enpresaren informazioaren babesa etengabe eguneratzen eta indartzen du.

Ondorioa

Segurtasun digitala **guztion ardura da**, eta horretarako ohitura seguruak hartu behar ditugu. Teknologia erabiltzerakoan, gailuen babesa, datu pertsonalen pribatutasuna, osasuna, ingurumena eta enpresen segurtasuna bermatzea ezinbestekoa da. Horretarako, eguneratzeak, segurtasun-protokoloak eta arriskuen kudeaketa etengabe aplikatu behar dira, eta horrela segurtasun digitala indartu eta arriskuak minimiza daitezke

(azken eguneratzea: 2025/05/20)

Eusko Jaurlaritza Lanbide Heziketako Sailburuordetza. Lan honek Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin 4.0 Nazioarteko Baimena dauka (CC BY-NC-SA 4.0).

